



HEZKUNTZA PROIEKTUA

**Adingabeen
hezkuntza xededun talde harrera
2021**

Aterperik Gabeko Aisialdi Zentroa
Gazte Gunea

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. Arauak eta hezkuntza-proiektuaren testuingurua	4
1.1. Zergatik? Zertarako? Nork? Norentzat?	4
1.2. Lurraldeko hezkuntza proiektuarekiko loturak.....	4
1.3. Aterpetik gabeko aisialdi zentroa eta gazte gunea	4
Aterperik gabeko aisialdi zentroa.....	4
Gazte gunea	5
2. Adingabeen behar fisiologiko eta psikologikoak	5
2.1. Behar fisiologikoak eta osasun beharrak	5
2.2. Segurtasun fisiko, afektibo eta moral beharra	6
2.3. Esperientziak egiteko eta mundua esploratzeko beharra	6
2.4. Haurrak taldean	7
3. Hartzen diren haur eta gazteen ezaugarriak	8
4. Osasun nahasmendua ala ezgaitasuna duten adingabeen harrera	9
5. Ziburuko hiriaren hezkuntza-ekintzaren helburuak	10
5.1. Helburu orokorrak	10
5.2. Xede gaitasunak (“gai den” haurra).....	11
6. Antolaketa moldeak	12
6.1. Proiektu pedagogikoa.....	12
6.2. Zuzendariaren jarraipena	12
6.3. Ebaluaketa moldeak	13
7. Hezkuntza-taldeein eman baliabideak	13
7.1. Jende baliabideak: pedagogia-taldea.....	13
7.2. Baliabide materialak	13
Aisialdi-zentroaren egoitza: 3, blokeetako bidea – Zokoa.....	13
Gazte gunearen egoitza: A. Briand eskola.....	14
Herriko kanpoko eremuak	14
Garraioak	15
Ikasmateriala.....	15
Apiruak.....	15
Harrera leku bakarra.....	15
7.3. Diru baliabideak.....	15
8. Adingabeen ordezkarien tokia eta haiekiko harremana	15
ONDORIOA	16

SARRERA

Haurrak taldean eta etxetik kanpo hartzea hezkuntza-ekintza da.

Opor eta aisialdi denborak haurren hezkuntzaren parte dira eta ingurumena eta esperientziak berenganatzeko parada ematen diete. Aisialdi-zentroa urtean batez beste 110 egunez zabalik da, eta haurren biziko hirugarren gunea da, eskolaren eta familiaren ondotik. Ardurak hartzeko parada ematen die, baita auzoko, herriko, eskolako eta beste egituretako (kirol klubak, kultur eta arte elkarteak...) jendeekin harreman ezberdinak sortzekoa, beste ingurumen batzuk ezagutzekoa (ateraldiak eta kanpaldiak) eta bertze haur eta gazte batzuk ezagutzekoa ere.

Harrera hori antolatzen duelarik, herriak gogoan atxikitzen du denbora horiek eskolako eta familiako hezkuntzaren osagarri direla, eta aisialdia, ikasketa eta bizi kolektiboa biltzen dituzten proiektuak garatzeko eginahalak egiten ditu. Hala, gunearen xedea haur eta gazte bakoitzaren sormen-ahalmena laguntzea, ardurak hartzea bultzatzea, kalitatezko jardueretan parte hartzeko parada ematea eta autonomia garatzea dira, marka berriak emanez eta izpiritu kritikoa landuz.

Herrian bizi diren ala eskolatuak diren 3 eta 15 urte arteko adingabeentzat aisialdi harrera antolatzeko engaiamendua hezkuntza-ekintza azkarra denez, hezkuntza-helburu argiak eta antolatzailearen esperantzen araberakoak finkatzea eskatzen du eta merezi du.

Proiektu honen eta bertan bildu ditugun hezkuntza-asmoen eta gomendioen xedea da aisialdi zentroak kudeatuko dituzten talde pedagogikoek gida gisa balia dezaten eta egonaldi bakoitzeko proiektu pedagogikoak, animazioak eta jarduerak sortzeko eta idazteko inspirazioa hemen atzeman dezaten.

1. Arauak eta hezkuntza-proiektuaren testuingurua

1.1. Zergatik? Zertarako? Nork? Norentzat?

Jendarte ekintzaren eta familien kodeak adingabeak gurasoen etxetik kanpo hartzea arautzen du eta hezkuntza proiektu bat prestatzea aurreikusten du. Dokumentu hori nahitaezkoa da adingabeen harrera deklaratzeko, eta egitura Estatuko ordezkari baten kontrolpean ezartzen du. Ordezkari horrek guneko ekintzen hezkuntza-kalitatea eta adingabeen babeserako baliatzen diren baliabideak bermatzen ditu (lokalen kontrola, heldu arduradunen kopuru-baldintzak betetzea, esku hartzen dutenek debekurik edo ezintasunik ez dutela egiaztatzea). Harreraren zuzendaritza eta animazio lanean ari diren pertsonen hezkuntza-ekintzaren helburuak ezartzen ditu, eta norabideak eta helburu horiek gauzatzeko erabili behar diren jende-baliabideak, baliabide materialak eta diru-baliabideak finkatzen ditu.

Aisialdi zentroaren eta gazte gunearen zuzendaritzaz edo/eta animazioaz arduratzen diren pertsonen transmititzen zaie hezkuntza-proiektua, lanean hasi aitzin.

Kontuan hartu behar da hezkuntza-proiektuak antolatzailearen eta talde pedagogikoen arteko harremanak indartzen dituela, eta zentro eta/edo denboraldi bakoitzerako, hasierako hezkuntza-xedeeekin bat datorren proiektu pedagogikoa sortzeko parada ematen duela.

Dokumentu hau herriko hautetsiek 2021eko urtarrilean Hezkuntza Haur eta Gazte batzordearekin batera eraiki duten gogoeta lanaren emaitza da. Herriko kontseiluan aurkeztuko eta bozkatuko da.

1.2. Lurraldeko hezkuntza proiektuarekiko loturak

Lurraldeko hezkuntza proiektua tokiko lankidetzarako tresna da. Lurralde bateko baliabide guziak mobilizatzen ditu, eskoletako proiektuen eta eskola-denboratik kanpo haurrei proposatzen zaizkien jardueren arteko jarraitutasuna bermatzeko. Beraz, hezkuntza zerbitzu publikoaren ildotik doazen eta zerbitzu horren osagarriak diren eskolaldi inguruko jarduerak antolatzeko parada ematen du.

Ziburuko hiriak hezkuntza-proiektu bat eta “asteazkeneko plana” labela duen lurraldeko hezkuntza-proiektu bat sortzea erabaki du, hirian ko-hezkuntza orokorra antolatzeko duen asmoa berresteko.

1.3. Aterpetik gabeko aisialdi zentroa eta gazte gunea

Aterperik gabeko aisialdi zentroa

Aisialdi zentroak, lehenetsunez, hirian bizi ala eskolatuak diren haurrak hartzen ditu, baita hirian lan egiten dutenen seme-alabak ere, 3 urtetik goiti ala eskolan hasi orduko.

Herri mugakideetako haurrak ere hartzen ahal dira, leku librerik baldin badago. Adingabeak herriko animazio-zentroan hartzen dira, Zokoa auzoan, blokeen bideko 3.ean.

Arauari dagokionez, eskolaldi inguruko harrera (asteazkenekoa) eta eskolaz kanpoko harrera (eskola-oporretakoa) soilik deklaritzen zaizkie Frantziako estatuko zerbitzuei, eta horientzat baizik ezin da CAFaren dirulaguntzarik ukan.

Eskola aitzineko eta ondoko denborak eta eguerdiko atsedenaldea, “eskolaldi inguruko harrerak” izanik ere, oraingoz ez dira deklaritzen. Hala ere, tarte horietan animazio proiektuak antolatuko dira, lurraldeko hezkuntza-proiektuarekin loturik.

2021eko urtarrilean, hirian zenbatu 650 haur inguruetatik, 353 hiriko eskola publiko ala pribatu batean dira, eta beste 39, Untxineko herriarteko ikastetxean. Batez beste, 73 adingabe hartzen dira AGAZean

asteazkenetan eta eskola-opor ttipietan, eta gehienez 130 haur dira, batez beste, uztailean (2019ko erreferentzia).

- 3-5 urtekoak haurren %43 dira;
- 6-11 urtekoak, %47;
- 12-17 urtekoak, %10.

Zentroa urteko asteazken guziz zabalik da, baita udazkeneko, neguko eta udaberriko oporretan ere (urte bukaerako oporretan hetsia da); hots, batez beste, urtean 110 egunez eta 1155 orenez. Aisialdi zentroak ateraldiak ere antolatzen ditu, oporretan, gauak barne, bereziki udan.

Gazte gunea

Gazte gunek kolegiotik goitiko adingabeak hartzen ditu. Nerabegaien eta nerabeen behar bereziak direla eta, Aristide Briand eskolan harrera egiteko leku berezi bat prestatu du hiriak, eta eskola-oporraldi guziz gazte guneari eskura ematen dio. Irekitzeko eta ixteko ordutegiak malguak dira, gazteei eta proiektuei egokitzeko gisan. Gazte guneko harrera aisialdi zentroarekin batera deklaritzen da; lokala baizik ez da aparte deklaritzen. Gazte gunek hirian bizi diren gazteak hartzen ditu lehentasunez. Inguruko herrietako gazteak ere joan daitezke, leku librerik gelditzen baldin bada.

Harrera gunek horrek gazteei laguntasunezko eremu batean biltzeko parada ematen die. Haien arteko eta animatzaileekiko harremanak errazten ditu, eta ezagutzen ez zituzten jardueretan parte hartzeko aukera ematen die (arte, kirola, kultura, ingurumena, mekanika, numerikoa...). Proiektu, espazio eta denbora berezi horiek gazteak adierazten, autonomo bilakatzen eta loratzen laguntzen dituzte.

Gazte gunean 24 leku dira eskola-oporretan (udazkenean, neguan, udaberrian eta udan). Gazte gunek zenbait eguneko ateraldiak ere antolatzen ditu.

2. Adingabeen behar fisiologiko eta psikologikoak

Taldeko bizia antolatzean eta proiektuak eta jarduerak plantan ematean, hezkuntza proiektuak adingabeen behar fisiologiko eta psikologikoak kontuan hartu behar ditu. Antolatzaileak hartzen dituen pertsonen beharrak aintzat hartzen ditu eta heldu arduradunak sentsibilizatzen ditu, behar horiek errespetatzen dituzten.

2.1. Behar fisiologikoak eta osasun beharrak

Loak eta atsedenaldiak funtsezko tokia dute haurren egunen antolaketan. Lo eta atsedene zikloa osatzen duten fase guziz betetzea beharrezkoa da haurrek handitzeko eta memorizatzeko behar dituzten prozesuak gerta daitezzen.

Kronobiologian, hau da, erritmo biologikoaren ikerketan, haurren arreta ala atzartasun faseak ezberdintzen dira. Egunetako programak antolatzean horiek kontuan hartzea funtsezkoa da, ikaskuntzak laguntzeko eta haurrak baldintza intelektual eta fisiko onenetan ezartzeko, proposatzen diren jardueren arabera.

Eguneko kronobiologia:

- 8:30-9:30: atzartasun apala, lo eskasagatik ala 3 urte aitzineko lo-erritmoarekin segitzeagatik;
- 9:30-11:00: atzartasun handia (epe laburreko memoria)
- 13:00-14:00: atzartasun apala (loaldia, momentu lasaia)
- 14:30-16:30: atzartasun handia (epe luzeko memoria)

- 16:00-19:00: aktibitate fisikoak egiteko tarte egokiena (gorputzeko temperatura gorenean, metabolismoa gora, giharren indarra eta koordinazio sentsorimotorra gorenean)

Adingabeen osasuna zaintzeko, zuzendariak osasun-laguntzaile bat izendatzen du, zentroko adingabeen segimendua egin dezan. Haien mediku dosierra ezagutu behar du (tratamenduak, alergiak, dieta bereziak) eta talde pedagogikoari jakinarazi behar dio. Tratamenduak ematen ditu eta larrialdi kasuetan esku hartzen du. Osasun-laguntzaileak sokorri kutxen edukia erregulariki eguneratzen eta kontrolatzen du, baita egin arten segimendu-erregistroa ere. Animazio-taldeak, bi urte guziz, PSC1 formakuntza (1. mailako prebentzioa eta sokorri zibikoak) berriz egiten du.

Harrera-zentroetan eta adingabeen aitzinean alkohola, tabakoa eta legez kontrako produktuak kontsumitzea debekatua da. Hala ere, animatzaileek atsedentarteetan erre nahi badute, eraikinaren inguruan egin dezakete, haur taldeek ikusten ez badituzte.

2.2. Segurtasun fisiko, afektibo eta moral beharra

Bizi lekua atsegina izateak eta segurtasun neurrien araberakoa izateak eta entzuteko prest diren eta bihotz onekoak diren helduak inguruan ukateak haurrak ongi izaten laguntzen ditu. Haurren, burasoen eta animatzaileen artean konfiantzazko eta errespetuzko harremanak sortzea beharrezkoa da, zentroan ibiltzen diren adingabeen segurtasun afektiboa bermatzeko.

Haurren segurtasun fisikoa edo/eta afektiboa jokoan ezartzen duen gertakari orotan, animatzaile taldeak edo/eta zuzendariak familiari egoeraren berri eman behar dio eta adingabeak hobeki laguntzea eta artatzea ahalbidetuko duen elkarriketa antolatu behar du. Zentrorira iristean eta zentrotik abiatzean, transmisio tarte bat antolatuko da, erritual gisa. Zentroko zuzendariak antolatzaileari gertakari larri ororen berri eman behar dio.

Animatzaileek, "autoritadedun langile" gisa, laiktasun eta norbanakoen errespetu printzipioak batere diskriminaziorik gabe (generoa, orientazio afektibo eta sexuala, jendarte maila, jatorria) betetzen direla zaindu behar dute. Haurrak izpiritu herritarra garatzen laguntzeko funtsezko eginkizuna dute. Adingabe guzien eta haien familien sinesteko ala ez sinesteko eskubidea zaintzen dute. Animatzaileek neutraltasunez jokatu behar dute, eta lan denboran ez dituzte beren iritzi politikoak ala erlijiozko iritziak adierazi behar. Diskriminaziorik ez da onartuko.

2.3. Esperientziak egiteko eta mundua esploratzeko beharra

"Zapping" eta kontsumo jendarte honetan, talde pedagogikoa haurrei esperimintatzeko eta mundua esploratzeko parada ematen dien proiektuak proposatzera ahalegindu behar da. Proiektu guzietan jakinmina eta ikasteko eta ezagutzak eta trebetasunak garatzeko gogoia piztu behar dute. Horretarako, antolatzen diren proiektuen eta animazioen aniztasuna zaindu behar da:

Gorputz jarduerak eta jarduera fisikoak, mugimenduak eta jestuak hobetzen ikasteko eta gorputza hobeki ezagutzeko eta, beraz, hobeki errespetatzeko;

Adierazpen- eta sormen-jarduerak, irudimena garatzen laguntzeko;

Jarduera kognitiboak, oroimen, hizkuntza, arrazoibide, dedukzio eta problema ebazpen jokoak proposatuz.

Haurrak beren esperientzia eta esplorazioen aktore dira, ikasketetan parte hartzen dute eta beren ezagutzak eta gaitasunak baliatzen dituzte. Animatzaileen eginkizuna haurrak ikasketen prozesuetan laguntzea da. Zuzendariak tokiko eragile guzietan (erakundeak eta elkarteak) partaidetzak sortu behar ditu, irekidura hori ahalbidetzeko.

2.4. Haurrak taldean

Beren nortasuna, bilakatuko diren gizabanakoak eraikitzeko, hurrek bertze pertsona batzuekin harremanetan sartu behar dute, talde bateko kide izan, baita taldearen barnean ezagutua eta entzuna izan ere. Lehen jendarte-harremanak familian eraikitzen dira, eta harreman horiek bizi osoan indartu behar dira.

Animatzaileek haurrak lagundu behar dituzte taldean beren tokia aurkitzen, beren izateko gaitasuna garatuz. Adingabe bakoitzak taldearen trukeetan eta erabakietan parte har dezan zaindu behar dute. Animazio-proiektuak prestatzean, animazio-taldeak adingabeen nahiak eta proposamenak kontuan hartu behar ditu, parte-hartzaile senti daitezen eta haien ekimenak eskertzen direla ohar daitezen (ahalmenen arabera: aurrekontua, ingurumena, gauzatzeko baldintzak, araudia eta abar kontuan hartuz). Horretarako, tresna egokiak sortu behar dira; hala nola, ideia-kutxak, adierazpen-horma ala solas denborak (bilkurak ala batzordeak).

Egonaldi bakoitzean, animazio-tarte bat harreraren bizi arauak zehazteko baliatuko da. Koadro hori haur eta gazteen eta animatzaileen artean eraikiko da, ongi ulertzen dutela eta errespetatuko dutela segurtatzeko. Bertzeekin handitzeko, hurrek arauak eta mugak behar dituzte, eta arau horiek osatzen duten koadroa azaldu behar zaie eta ulergarria izan behar zaie.

3. Hartzen diren haur eta gazteen ezaugarriak

Haurren harrera kalitatezkoa izan dadin, bakoitzaren beharrak ongi kontuan hartu behar dira eta adinen arabeko behar-multzoak aintzat hartu behar dira.

- **Lehen haurtzaroa (3-5 urte):**

<p>Aldi fisikoa: Egunerokoaren garrantzia Arriskuaren nozio guti Gaitasun fisiko aldakorak Gorputzaren ezagutza (hotzaz eta beroaz guti ohartzen)</p> <p>Behar fisikoak: Marka zehatzen beharra (espazioa, denbora) Atsedean tarteen beharra</p>	<p>Aldi soziala: Posesiboa / ez aise partekatzen / egozentrikoa Imitazioa, identifikazioa Mintzo da baina guti entzuten du Ez du galdu nahi</p> <p>Behar sozialak: Taldeen bizitzaren ikastea Autonomia ikastea</p>
<p>Aldi afektiboa: Sentikortasun handia</p> <p>Behar afektiboak: Segurtasun/erosotasun beharra Trantsizio objektuaren garrantzia (ñuñua) Erritualen garrantzia</p>	<p>Aldi intelektuala: Jakin-nahia Irudimen handia Kontzentrazio tarte laburrak Memoria handia Denboran ez orientatua</p> <p>Behar intelektualak: "Zergatik" adina Behatzeko beharra</p>
<p>Behar biologikoak: Elikadura aniztua Gorputz higieena Jendarte-bizia, jendetasuna, legeak ikastea</p>	

- **Haurra (6-9 urte):**

<p>Aldi fisikoa: Gorputza ongi menperatua Onestasuna</p> <p>Behar fisikoak: Besteei buru egiteko beharra Indarrak gastatzeko beharra, laster indarberritzen</p>	<p>Behar sozialak: Gaitasunen heineko ardurak hartu nahi Bakarrik egin nahi Elkarrekin eraiki nahi Taldea-biziaren garrantzia Lagunak egiteko, errazago partekatzen</p>
<p>Aldi afektiboa: Besteei identifikatzen</p> <p>Behar afektiboak: Konfiantza egiten zaiola sentitzeko beharra Segurtasun beharra</p>	<p>Aldi intelektuala: Irakurtzen eta idazten badaki Jakin-nahia Izpiritu kritikoaren hastapena Denbora eta espazio orientazioa Irudimena, ametsen munduarenganako interesa.</p> <p>Behar intelektualak: Jakiteko, ulertzeko beharra</p>

- **Nerabegaiak (10-13 urte):**

<p>Aldi fisikoa: Pubertatearen eta aldaketa fisikoen hastapena Gazte batetik bestera, hazkuntza ezberdinak Gorputz traketsa eta segurtasun falta</p> <p>Behar fisikoak: Ahalen mugak gainditzeko beharra</p>	<p>Aldi soziala: Jendarte-bizia gero eta garrantzitsuagoa Lehia izpiritua Autoritate figurei identifikatzen</p> <p>Behar sozialak: Talde baten kide izateko baina bere nortasuna atxikitze beharra Beren balioak aintzat hartuak izateko beharra</p>
<p>Aldi afektiboa: Nortasunaren markatzea Familia-ingurumenetik urruntzea Burasoei buru egiten hasten Sentikortasun afektiboa Umore aldakorra</p> <p>Behar afektiboak: Autonomia beharra</p>	<p>Aldi intelektuala: Sorkuntza landuenganako interesa Taldea eta lehia izpirituak</p> <p>Behar intelektualak: Teknikak ikasteko eta menperatzeko beharra Gogoeta eta izpiritu kritikoa garatzeko beharra</p>

4. Osasun nahasmendua ala ezgaitasuna duten adingabeen harrera

Denentzako helgarritasunaren printzipioa 2005eko otsailaren 11ko legeak berretsi zuen, pertsona ezgaituen eskubide eta aukera berdintasunari, partaidetzari eta herritartasunari buruzkoak.

Ezgaitasuna duten adingabeak aisialdi-zentroan hartzeko baldintzak familiekin eta ezgaitasunen arabera adostuko dira. Harrera egin aitzin, zuzendaria, Hezkuntza, Haur eta Gazteen hautetsi arduraduna eta burasoak bilduko dira, harrera protokoloa prestatzeko. Protokoloan, informazio hauek bilduko dira:

- Haurraren patologia;
- Taldean errazago sartzeko dituen beharrak;
- Baldintza onenetan hartzeko hezkuntza-taldeak baliatuko dituen tresnak;
- Antolatzaileak ala familiak bere gain hartu beharko dituen antolamenduak (antolaketakoak ala funtzionalak) eskatzen dituzten zailtasun ala oztopoak.

Bi eguneko entsegu-aldia antolatuko da, harrera eta taldearen eta gaztearen erreakzioak neurtzeko eta, behar izanez gero, lan-jokabideak egokitzeko. Harrera pixkanaka antolatuko da, familiarekin adostuta. Aldi hori bururatzean, animazio-taldea, zuzendaria eta Hezkuntza, Haur eta Gazteen hautetsi arduraduna bilduko dira, protokoloa idazten bukatzeko eta harrera segitzen ahal den ala ez erabakitzeke. Haurraren harrera-aldi osoan, erregulariki ebaluaketak egingen dira; gertakarien arabera (bertze haurrak arriskuan ezartzea, taldeko biziari egokituak ez diren portaerak, helduekiko harremana), antolatzaileak harrera eteteko eskubidea ukanen du.

Hartzen diren haur ezgaituen kopurua toki libreen eta heldu arduradunen arabera finkatuko da, ezgaitasuna duten adingabeak, beren familiak eta zentroko bertze haurrak ahal bezain baldintza onenetan hartzen direla bermatzeko.

Ezgaitasuna duen haur bat sartzek erran nahi du harrera-egitura (haren antolaketa, egokitzapena, funtzionamendua...) zaiola haurri eta haren ezgaitasunari egokitzen, eta ez alderantziz. Haurra arrunt taldeko kide da. Inklusio-prozesu horrek ezinbesteko aurrebaldintzak eskatzen ditu:

- Ezgaitasuna duen haurra taldearen bizi-arauak onartzeko gai izatea;
- Talde hartzailea bere eskakizunak egokitzeko gai izatea, hartzen den pertsonaren berezitasuna kontuan hartuz;
- Animazio-taldea ezgaitasuna duten haurrak hartzeko formatua izatea;
- Zuzendariaren eta animazio-taldearen artean lan bat egitea harrera hori prestatzeko (haurren egoerari buruzko informazioa, aurreikusi beharreko espazioen balizko antolamenduak eta egokitzapenak).

Ez dira beti langile gehiago hartu behar izaten, baina haurrak taldean sartzeko gaitasuna baldin bada eta, hala ere, proposatutako jardueretan parte hartzeko ez baldin bada autonomia, langile gehiago enplegatu behar izaten dira. Adibidez, erraz erortzen den eta bere burua babesteko erreflexurik ez duen haur batek etengabeko laguntza fisikoa behar du, nahiz eta, bestalde, jostatu, bertzeekin harremanetan jarri eta aisialdi zentroan plazera hartu.

Animatzaileen eginkizuna bertze hurrekin duten bera da. Ezgaitasuna duen haurra lagundu behar dute taldean toki bat atzematen eta jardueretan parte hartzen. Haurren garapenaren arabera, taldea hezkuntza-partaide bilakatzen da, eta denak hartan bermatzen ahal dira.

5. Ziburuko hiriaren hezkuntza-ekintzaren helburuak

Aisialdi-zentroa eta gazte gunea bi harrera eta bizi leku dira; hurrei eskolan ikasi dutena eguneroko ekintzetan joko-xedearekin gauzatzeko parada ematen die.

5.1. Helburu orokorrak

Gure hiriko gazteak gerora ukanen dituzten ardurei buru egiteko prest izan daitezen nahi dugu; heldu arduratsu bilakatzen eta herritartasun engaiatua ongi bizitzeko eta elkar bizitzeko baldintza gisa jotzen lagundu nahi ditugu.

Harrera antolatuz, haur eta gazte ziburutarrak geroko herritarrak izaten lagundu nahi ditugu; hau da:

- Beren gorputza eta osasuna zaintzen;
- Talde, elkarlan eta elkartasun proiektuetako eragile izaten;
- Sormen ahalmena ukaten eta pentsamolde kritikoa garatzeko gai izaten;
- Beren kultur eta natura ingurumena ezagutzen, eta, aldi berean, mundura irekitzen;
- Ingurumena babesten, tokiko eta munduko erronken kontzientzia ukaten.

5.2. Xede gaitasunak (“gai den” haurra)

- **Gaitasun psikosozialak**
 - Zentroko jardueretan, jokoetan eta bizian parte hartzea, lankidetzan eta arauak errespetatuz;
 - Nahiak, itxaropenak, iritziak eta emozioak modu aske eta kontrolatuan adieraztea;
 - Ahoz eta idatziz komunikatzea;
 - Norbere hitzik gabeko komunikazioa kudeatzea;
 - Parekoak entzuteko prest egotea;
 - Gatazkak modu eraikitzailean kudeatzea;
 - Erabakiak hartzeko prozesuetan eta proiektu kolektiboetan parte hartzea;
 - Elkartasunez jokatzeko;
 - Desberdintasunak onartzea.
- **Gaitasun teknikoak**
 - Esku lanen arloan ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea;
 - Arte plastikoaren arloan ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea;
 - Ikuskizun biziaren arloan (ikus-entzunezkoa, antzerkia...) ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea;
 - Musikaren, kantuaren, bertsolaritzaren eta dantzaren arloetan ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea;
 - Zientziaren arloan ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea, batez ere garapen iraunkorarekin zerikusia duten jardueretan.
 - Naturari (fauna-flora) eta naturaren babesari buruzko ezagutzak eta trebetasunak bereganatzea;
 - Idatzizko kulturaren eta, bereziki, literaturaren eta poesien trebatzea;
 - Teknologia berriak modu kontrolatuan eta kritikoan baliatzea;
 - Tokiko egituren arabera, arte, sormen edo kultura jarduerak hautatzen jakitea.
- **Gaitasun psikomotorrak**
 - Gorputza ezagutzea eta zaintzea;
 - Oinarrizko mugimendu gaitasunak bereganatzea (trebetasuna, iraupena, indarra, erresistentzia, abiadura);
 - Molde askotako jarduerak fisikoak eta kirol-jarduerak ezagutzea;
 - Tokiko egituren arabera, jarduerak fisiko edo kirol-jarduerak hautatzen jakitea.
- **Ondarearen arloko gaitasunak**
 - Ziburuko eta Euskal Herriko kultura ondarea eta natura ondarea ezagutzea;
 - Memoria kolektiboa daramaten aitzineko belaunaldikoekin harremanak izatea;
 - Euskara jakitea eta erabiltzea;
 - Ondare hori biziarazteko talde-proiektuak sortzea.
- **Euskararen lekua**

Ziburuko lurraldean, euskarazko irakaskuntza eskaintzen duten eskola publiko eta pribatuetan eskolatutako ikasleen %58 klase elebidunetan dira (haurren %70 haurtzaindegian; hots, 10 haurretik 7). Argi dago, beraz, familiek euskararekiko atxikimendua dutela eta seme-alabak euskara erabiltzen ikusi nahi dituztela.

Aisialdiko harrera zentroak hezkuntzan eta ikaskuntzetan ko-hezitzaile diren heinean, haien eginkizuna hizkuntzaren erabilera iraunaraztea eta gazteek euskara gehiago entzun eta praktika dezaten ahalbidetzea da, joko-dimentsioa eta plazera gehituz, horiek baitira motibazioaren lehen akuiluak.

Eskolan ikasiak joko testuinguruan indartzeko eta transferitzeko aukera eman behar dute. Hurrek, jokoan bidez ikasiz, inguruko munduari zentzua ematen diote eta ikaskuntzak sendotzen dituzte.

Antolatzaileak familiei seme-alabei murgiltze-harrera eskaintzeko aukera eman nahi die. Dispositibo hori gauzatzeko baliabideak mobilizatzen ahalko diren bezain laster abiatuko da. Euskararekiko interesaz gain, euskal kulturarekikoa ere landuko da. Euskal kultura-inguruneari, natura-inguruneari, historiari eta tokiko tradizioei irekitzeko, animazio-proiektuak antolatuko dira. Halaber, prozesua orokorra izan dadin, komunikatzeko tresnak, afixak eta familiendako gutunak euskarara itzuliko dira.

6. Antolaketa moldeak

6.1. Proiektu pedagogikoa

Proiektu pedagogikoa zentroko zuzendariak idazten du, animazio-langileekin lankidetzan. Hezkuntza-taldeek adingabeen harreran hezkuntza-ekintzak antolatzeko hartzen duten engaiamendua adierazten du, eta ekintza horiek antolatzeko funtzionamendua zehazten. Egituraren proiektu pedagogikoa harrera-aldi batetik bestera (asteazkenetan eta eskola-oporretan) eta hartzen diren pertsonen arabera (aisialdi-gunea eta gazte gunea) aldatzen da. Egituraren funtzionamendua eta pentsatuak diren diru eta langile bitartekoak zehazten ditu, baita lana ebaluatzeko irizpideak ere, egin lana neurtzeko eta ondoko egonaldiak beharren arabera aldatzeko ala egokitzeko. Antolaketa eta bilan bilkurak antolatuko dira, adingabeen harrera denboratik kanpo, langileek beren ekintzak ebalua ditzaten, eztabaida dezaten eta haien lan jokabideak azter ditzaten.

Proiektu-dinamika eta berrikuntza pedagogikoa sustatzea:

Animazio berrien bilaketa eta berrikuntza pedagogikoa izango dira egindako proiektuen ardatz. Animatzaile bakoitzak eta animazio-talde guzietan beren buruaz gogoetatuko dute beti, eta jendartearen, familien eta haurren aldaketetara egokituko dira. Beti aitzina egin behar da, errektibo izateko eta proiektu berriak gauzatzeko. Proiektu-dinamika elementu egituratzailea da. Norbere buruaz gogoetatzeko, gauza berriak ikasteko eta elkarrekin eraikitzeko aukera ematen du, eta giza balio egokietan oinarritzen da, norbere loratzea laguntzeko eta hurrek eta gazteek inguruan duten mundua hobeki kontrolatzeko.

6.2. Zuzendariaren jarraipena

Funtzionamendu-aldi bakoitzaren bukaeran, harrera guneko zuzendariak finantza-bilana eta jardueratxostena egingo ditu (asteazkeneko eskolaldi inguruko harrerarentzat, urteko bilana, eta eskola-oporretako egonaldi bakoitzaren ondotik bilan bat). Txosten horietan, zerbitzuaren kalitatea hobetzeko edo iraunarazteko egin daitezkeen aldaketa pistak zehaztuko dira.

Urteroko ekainean, auzapez jauna ala Hezkuntza, Haur eta Gazteen arloko arduraduna den lehen axuant anderea, zerbitzuko arduraduna eta harrera guneko zuzendaria bilduko dira. Bilkura hori ikasturteko proiektu pedagogikoak ebaluatzeko eta hurrengo urteko antolaketa proposatzeko aukera izanen da.

Egonaldian edo harrera denboran edozein gertaera larri gertatuz gero, berehala emango zaio berri auzapez jaunari ala lehen axuant andereari, Frantziako Estatuko zerbitzuen aurrean egin behar diren seinaleztapen-betebeharrak betetzeko (Casf R 227-11). Adingabe baten aurkako kanporaketa neurri proposamen oro auzapez jaunak ala lehen axuant andereak onartu beharko du, eta egituraren barne araudian gai horri dagokion puntua aldatuko da.

6.3. Ebaluaketa moldeak

Hezkuntza proiektu honen indarraldia hiru urtekoa izanen da, eta adierazi gabe luzatzen ahalko da. Batzorde berezi batek urtero ebaluatuko du. Hezkuntza-proiektuaren 3 urteak bukatzean, hezkuntza-proiektuari buruzko galdetegi bat (gogobetetze galdetegiaren gisakoa) helaraziko zaie familiei. Arreta berezia jarriko zaio hezkuntza-helburuak lortzeari eta AGAZeko zuzendariaren esperientziari buruzko iritzeari. Urteko ebaluazioaren ondorioz, hezkuntza-proiektu honi aldaketak ekartzen ahalko zaizkio.

7. Hezkuntza-taldeei eman baliabideak

Antolatzaileak (herriko etxeak) pedagogia-taldeei hezkuntza-proiektua gauzatu ahal izateko bitartekoak eskura ematen dizkie.

7.1. Jende baliabideak: pedagogia-taldea

Hiriak gizarte ekintzaren eta familien kodea hartzen du erreferentzia, aisialdi-zentroak eta bertan hartzen diren adingabeen kudeaketa arautzen baititu; bertzeak bertze, heldu arduradunen diploma baldintzak eta heldu kopuruak finkatzen ditu.

Hala, arau hauek bete behar dira:

- Asteazkeneko eskolaldi inguruko harrerarentzat:
 - o Sei urtetik beherako hamar adingaberentzat animatzaile bat;
 - o Sei urte ala gehiagoko hamalau adingaberentzat animatzaile bat.
- Eskolaz kanpoko harrerarentzat:
 - o Sei urtetik beherako zortzi adingaberentzat animatzaile bat,
 - o Sei urte ala gehiagoko hamabi adingaberentzat animatzaile bat.

Formakuntza jarraikiko plan bat aurkeztu beharko da, hezkuntza-proiektu hau gauzatzeko pedagogia-taldeari eskatzen dizkion gaitasunak indartzeko.

7.2. Baliabide materialak

Aisialdi-zentroaren egoitza: 3, blokeetako bidea – Zokoa

- **A gela: motrizitate gela eta aterpea**

Gune horretan, ttipienentzat motrizitate-jarduerak antolatzen ahalko dira, jarduera horretarako pentsatu moduluak, pilotak eta baloiak baliatuz. Eguraldi txarra baldin bada, aterpe gisa eta joko libreetarako gune gisa ere baliatzen ahalko da.

Harrera gaitasuna: 30 haur

- **Oihal ikuztegia:**

Egiturako garbitzeko produktuak, garbigailua eta idorgailua eta AGAZeko bilketa gela.

- **B gela: jarduera anitzetarako gela**

Jarduera gela horretan, 6 urte baino gehiagoko haurrak hartuko dira asteazkenetan, eta 3 eta 6 urteko haurrak udako oporretan.

Harrera gaitasuna: 30 haur

- **C gela: jarduera anitzetarako gela**

Jarduera gela horretan, 3 eta 6 urte arteko haurrak hartuko dira (harrera garaien arabera).

Harrera gaitasuna: 30 haur

- **D gela: jarduera anitzetarako gela**

Jarduera gela horretan, 3 eta 6 urte arteko haurrak hartuko dira (harrera garaien arabera).

Harrera gaitasuna: 30 haur

- E gela: Atsedenerako eta jarduera anitzetarako gela

Gela hori bi moldetara baliatzen ahalko da:

- Ttipienendako arratsalderako loaldi gela, elkarren gainean ezartzen diren oheekin antolatua.
- Loaldiaren ondotik, 6 urtetik beherako haurrak hartuko dituen jarduera gela (3 eta 5 urte artekoak).

Harrera gaitasuna: 30 haur

- F gela: Harrera bulegoa

Aisialdi gunera datozen familien harrera gunea.

Aisialdi zentroko zuzendariaren administrazio-bulegoa

- G gela: Harrerarako eta jarduera anitzetarako gela

Jarduera gela horretan, 6 urtetik gorako haurrak hartuko dira.

Harrera gaitasuna: 30

- H gela: Harrerarako eta jarduera anitzetarako gela

Jarduera gela horretan, 6 urtetik gorako haurrak hartuko dira, udako oporraldian.

Harrera gaitasuna: 30

- I gela: Zuzendaritza bulegoa

Lan gela eta animatzaileen gela

- Jantokia

Aisialdi guneko haurren eta langileen jantokia. Apairuak hotz iristen dira, eta egituran bertan berotzen.

Harrera gaitasuna: 48 pertsona

Gazte gunearen egoitza: A. Briand eskola

- Eraikinaren 1. estaiko gela

Gazteak hartzeko gela

- Jantokia

Gazteen eta langileen jantokia.

Herriko kanpoko eremuak

- Zokoako frontoia
- Untxineko parkea
- Hiriko estadioa
- Hondartza
- Hiriko erabilera anitzeko gunea
- Trinquet ttiki trinketea

Garraioak

Harrera guneez lehenetsuna ukanen dute hiriaren 9 tokiko bi ibilgailuak baliatzeko, adingabeak jardura lekuetara garraiatzeko.

Ikasmateriala

Zuzendariak ikasmateriala kudeatu behar du (eskatu, dagoenaren jarraipena egin), proiektuekin lotutako beharrak eta esleituko den aurrekontua errespetatuz. Animazio-taldeak material hori izango du eta errespetatu beharko du. Material hori erregularri biltegiatuko eta antolatuko da.

Apairuak

Apairuak eskaera orri bidezko merkatu baten kariatara hautatu enpresak hornitzen ditu. Aisialdi guneko jantokian janen dira, hainbat zerbitzutan (asteazkenetan eta eskola-oporraldi laburretan, 2) eta hirugarren zerbitzu bat Untxineko eskolako egoitzara eramanen da, 8 urte eta gehiagokoentzat (udan bakarrik – eskura emateko hitzarmena eginen da).

Harrera leku bakarra

Familiei leku bakarrean egiten zaie harrera, herriko etxeko plazan, izen emateen administrazio-jarraipena egiteko. Txosten bakarra bete behar da (aisialdi-harrerarako, eskolaldi inguruko harrerarako eta eskolako jantegirako txosten bera da), adingabeen izena emateko. Administrazio zerbitzuak txostena osatzeko paperak bildu eta familiaren datuak sartzeko programaren jarraipena eta kudeaketa lana egin behar ditu. Familia-ataria ere kudeatzen du; hau da, izen emateak kontsultatzeko eta aldatzeko gune numerikoa. Bestalde, fakturak bertan igortzen eta ordaintzen dira.

7.3. Diru baliabideak

Herriko etxeko taldeak urteko aurrekontu bat bozkatzeko du eta egonaldietan garatuko diren proiektuen arabera prestatzen du. Zerbitzuaren arduradunaren ardurapean, zuzendaria aurrekontuaren kudeaketaz eta jarraipenaz okupatzen da.

8. Adingabeen ordezkarien tokia eta haiekiko harremana

Erran gabe doa burasoek harrera-egituraren bizitzan parte hartu behar dutela, familia baita haurren lehen jendarte-esparrua. Familiekin konfiantzazko harremana izateko eta aisialdi-guneez bizian inplikatzeko baldintzak sortzea beharrezko erronkak dira; aitzinetik pentsatu behar dira, eta proiektu pedagogikoetan sartu. Beraz, pedagogia-taldeak arreta berezia eskainiko die familiei. Burasoek informazio-tarteak (bilkurak, bilanak), elkarrizketak, taldearekiko eta/edo antolatzailearekiko solasaldiak ukanen dituzte eta egonaldiak eta proiektuak gogobetetze-galdetegien bidez ebaluatzeko aukera ukanen dute.

Hezkuntza eta pedagogia proiektuak nahi duten familien eskura izanen dira, Ziburuko Herriko etxearen webgunean (Familia ataria). Proposatutako jardueren ordutegien, menuen, ateraldien eta egonaldien berri familiaren atarian emanen da, baita eskoletako eta aisialdi-zentroko afixa-paneletan ere.

Gainera, herriko etxeak arreta berezia du ezarri nahi dio burasotasuna laguntzeko ekintzak garatzeari. Buraso jokabide lasaiak, gogoetatuak eta egonkorrak onuragarriak dira haurren garapenerako eta loratzerako, baita familia-giroa hobetzeko ere. Pedagogia-taldeak gaitasunak eta ezagutzak ditu, eta familien zerbitzurako baliatuko ditu.

ONDORIOA

Hezkuntza-testuinguru honetan, familiak, eskolak eta aisialdiko eragileek lankidetzan aritu behar dute, haur eta gazte bakoitzaren garapen indibidual eta soziala bultzatzeko.

Hezkuntza proiektu hau idatziz, herriko etxeak bere herritarrentzat (familientzat eta haurrentzat) kalitatea bilatzeko dinamika duela adierazten du. Elkarrekiko errespetuan, elkarrizketan eta ekintza kolektiboan oinarritutako talde-lana eramanez, hezkuntza-proiektuak ondorio ederrak ukanen ditu.

Haur, Gazte eta Kirol zerbitzua eta Eskolako Gaien zerbitzua Ziburuko hiriak finkatu animazio eta aisialdi politikaren bitartekariak dira. Osoki engaiatu beharko dira, hiriak xede hartu dituen hezkuntza-helburuak lortzeko.

Ziburu, 2021eko ekainaren 25a.

Auzapeza,
Eneko ALDANA-DOUAT